

**EBAZPENA, 2020KO MARTXOAREN 10EKOA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN
ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ FORMULATZEN BAITA TRAPAGARANGO ETA SESTAOKO
(BIZKAIA) GALINDO SIS-GA PLAN PARTZIALAREN IRISMEN-DOKUMENTUA.****AURREKARIAK**

2019ko abenduaren 13an, Trapagarango Udalak eskatu zuen Trapagarango eta Sestaoko Galindo SIS-GA Plan Partzialaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta hasteko, bat etorritik Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatutakoarekin.

Eskarak dokumentazio hau jasotzen du: planaren zirriborroa, legeria sektorialak eskatutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin du, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta Plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarria, eta haren emaitza espedientean bildu da.

Halaber, espedientean jasotzen den dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean, interesdun orok egin zitzan egoki iritzitako ingurumen-arloko oharra.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, bat etorritik hala abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluekin nola urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da ezartzea zein oinarri arautuko duten ingurumenean efektu adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa, bermatuta ingurumenaren babes-maila handia izango duela, garapen jasangarria sustatzeko.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikuluen arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek behar bezala bermatuko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko efektuei buruzko analisia, hautabide egokiak hautatu ahal izateko; betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzailerik eta

sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1. a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek hartzen edo onartzen baditu eta legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira, ingurumen-inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean eta ur-baliabideak kudeatzeko direnean.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar zaie (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei, eta plan haien artean sartzen da Galindo SIS-GA Plan Partziala.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) 8. artikuluan zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi: otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra (Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (ingurumen-ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena. Lehenengoa.- Trapagarango eta Sestaoko Industria Sektorearen Plan Partzialaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua formulatzea, ingurumenerako soilik eta honako baldintza hauen arabera:

1. Plan partzialaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Plan partzialaren xedea da: SIS-GA sektore industrialeko antolamendu xehatua ezartzea, zeina lurzoru urbanizagarri sektorizatu legez sailkatuta baitago, eta estaldura ematea batez ere biltegiatze- eta logistika-erabilera zuzendutako programa funtzional bati, hargatik murriztu gabe beste erabilera-bateragarritasun batzuk. SIS-G sektorearen mugen barruan, bi udalerritako lurzoruak daude: Trapagarangoak eta Sestaokoak. Sektorearen zatirik handiena, berriz, Trapagarango Udalerrian dago.

Planak, bestalde, Sestaoko eta Trapagarango Plangintza Orokorra Bateragarri egiteko Planean Ibarzaharrerako eta haren ingurunerako ezarritako zehaztapenak garatzen ditu. Plan hori 2012an onartu zen.

Planak ezartzen duen zonakatzek erabilera handien arabera zatitzen du azalera: bideak, aparkalekua, ekipamenduak, espazio libreak, erabilera produktibo pribatuko partzelak eta erabilera produktibo lagatuko partzelak:

- Bide-sarea eta aparkalekuak. Hartu den antolamendu-eskemak toki-bidegintza berri bat sortzen du: eratzun formakoa da; zerbitzua ematen die ondorioz sortzen diren partzelei, eta Sestaoko Udalerriraino zabaltzen da. Ballontiko ardatzeko adarretik sartzen da. Horri esker, bermatzen da konektatzea funtzionatzen duen bide-sarearekin. Planak 19.742,10 m²-ko azalera hartzen du, eta barnean sartzen ditu bideei lotutako aparkalekuetara zuzendutako eremuak. Horrez gain, azalera horretan, 4.425,65 m² gordetzen dira bideari lotu gabeko beste aparkaleku batzuetarako.
- Espazio libreak. Espazio librearen azalera, guztira, 7.390,92 m²-koa da; haietako gehienak sektoreko iparraldean daude, A-8 autopistako adarraren eta BI-628 errepidearen artean. Espazio libreak ere sortzen dira trenbideko oinezkoen goipasagunean, zeinak Trapagaraneko geltokiari ematen baitio zerbitzua, hegomendebaldean, eta Galindoko tren-geltokiaren inguruan, hego-ekialdean. Berdegune lineal batzuk ere gehitzen dira, landatzeko; txikiagoak dira, eta sektoreko ertz batzuetan daude.
- Ekipamendua: Antzeman da bilketa-gune bat instalatu behar dela Sestaoko Udalerrian. 1.426,13 m²-ko azalera izango du, baina beste ekipamendu bat izatera ere zuzendu daiteke.
- Erabilera produktibo pribatuko partzela. Garatutako alternatiban, erabilera produktibo pribatuko partzela bat dago; oso-osorik kokatzen da Trapagarango Udalerrian, eta 29.947,61 m²-ko azalera esleitu zaio. Haren erabilera produktiboa da. Indarrean den planteamenduan, sailkapen industrializat jo da, 3. azpikategoriakoa; erabilera horrek barnean hartzen ditu manufakturako edo bildu eta banatzeko jarduerak, jendeari zuzenean eta ez-zuzenean saltzekoak. Era berean, erabilera horrek industria erakusleio eta merkataritzakoa jasotzen du, hirugarren industria eta B+G industria aurreratua. Bestalde, ulertzen da jarduera logistikoak ere kategoria horretan sartzen direla. Planak zehazten du ezen, partzela horri esleitutako eraikigarritasunetik (27.064,85 m²), gutxienez sestra gainera 18.975 m² sabaiko eraikigarritasuna zuzendu behar dela erabilera horretarako. Beste erabilera bateragarri batzuk dira: ostatuak, hotelak, bulegoak eta txikiak merkataritza.
- Erabilera produktibo lagatuko partzelak. Erabilera produktiboko bi partzela ezartzen dira, udal lagapenerako. Partzela horiek, guztira, 3.441,63 m²-ko azalera dute.

Sektorean uholdeak izateko dauden arazoak konpontzeko, eraikinen sestrak +5eko edo gehiagoko kuotetan kokatzen dira, ezponda txikiak sortuz perimetroko eremurik beheerenetan, zeinak bat datoz egon dagoen bidearekin.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta aplikatzeko jasangarritasun-irizpideak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020ren helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, urriaren 16ko 211/2012 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua iraunkortasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitatak eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- e) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea. Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- f) Natur baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- g) Energia-aurrezpena, energia berriztagarrien efizientzia eta erabilera sustatzea, baita kogenerazioa ere.
- h) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- i) Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitze neurriak integratuz.
- j) Arrisku naturalak gutxitzea.
- k) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen nahiz lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jardura indartuta.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

Plan partzialeko lurrak Gallindo auzoan daude, eta 66.374,04 m²-ko azalera dute; haietatik, % 92,1 Trapagarango Udalerrian daude, eta 7,9, berriz, Sestaon. SIS-GA sektoreak mugak ditu iparrean eta ipar-ekialdean Ballonti errekarerekin eta AP-8 autopistarekin, ekialdean lur publikoekin, hegoaldean trenbidearekin eta mendebaldearekin Gallindo poligonoko bidearekin.

Planaren xede den eremua lurzoru urbanizagarria da, eta egun oso degradatuta dago. Eremuko zatirik handienean, instalazio industrial zaharrak daude, eta eraikin batzuk hondatuta daude. Sektorearen ipar-mendebaldean, pabiloi industrial batzuk daude, erabiltzen direnak; pabiloi horiek kalitate ertain-baxuko eraikinak dira, elkarri erantsiak eta bizitegi-erabilerakoak, eta jarduketa-eremutik kanpo daude.

Planaren eraginpean zuzenean dagoen esparrua ez da Natura 2000 Sarekoa, ezta inbentarioan sartutako gune babestua edo natura interesekoa ere. Ez dator bat EAEko korridore ekologikoen sareko inolako egiturazko elementurekin, ez dago paisaia-balio inbentariatu edo katalogaturik, ezta kultura-ondareko elementurik ere, planak eragin ditzakeenik.

Hauek dira planaren eragina nozituko duen ingurunearen ezaugarriak eta baldintzatzaileak esanguratsuenak:

- Sektoreak uholde-arrisku handia du. Haren ia azalera guztiak ditu 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako etorbideak. Sektoreko ekialdea “Gallindo” UAHE ES017-BIZ-IBA-02n dago. Lehentasunezko fluxu-eremuak muga du Ballonti errekarerekin.
- Eremu osoa dago kokatuta lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eduki dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzoruetan. Sektoreko lurrazalaren zati batean, jarduketak egin dira lurzoru poluituei dagokienez, eta lurzoruaren kalitate-deklarazioa du. Neurri modura ezartzen da ezen, materialak induskatuz gero, SM3 puntuei eraginez gero, zeinak ikerketan mugatuta baitaude, TPHko kontzentrazio handiak dituzten materialen indusketa selektiboa egingo da. Era berean, bermatu beharko da zoladura dagoela une oro, eta hura berriro jarri beharko dela urbanizazio-obrek kaltetzen duenean.
- Ia sektore osoa Bizkaiko foru-errepideen zortasun-eremu akustikoaren eraginpean dago (4523/2013 Foru Agindua).
- Ballonti erreka dago plan partzialeko iparraldeko muga, eta zenbait puntuk estaltzen dute partzialki; izan ere, hainbat azpiegituraren bidegurutzean dago; esaterako, BI-628, BI-3746 eta A-8ren bidegurutzean. Hala eta guztiz ere, inguruneari naturaltasuna ematen dion elementu bakarra da, ur-bazterreko landaredia baitu.
- Ballonti ibaian, arrain hiruarantzaren populazio bat (*Gasterosteus aculeatus*) dago, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan jasota dagoena, kaltebera sailkapenean. Era berean, espezie horrek kudeaketa-plana dauka onartuta: 186/2008 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren

9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Arrain hiruarantzaren, *Gasterosteus aculeatus* *Linnæus*, 1758, Kudeaketa Plana onetsi duena.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Planaren eremuan, ez da detektatu eremu desegokirik jarduketak egiteko, betiere aplikatu beharreko ingurumen-araudia errespetatzen bada; bereziki, gai hauei buruzkoa: lurzoria kutsatzea prebenitu eta zuzentzea, plangintza hidrologikoa, uholde-arrisku eta kutsadura akustikoa aurreikustea.

5. Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterlan laburra

Jarraian, laburbildu da zein diren ingurumen-arloko eduki garrantzitsuena ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta-izapidean jasotako txostenetan:

- Ballonti ibaian, zeina industria-arearen mugakidea baita, arrain hirugarantzen populazio bat (*Gasterosteus aculeatus*) dago, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoan baitago jasota dagoena, kaltebera sailkapenean. Era berean, espezie horrek kudeaketa-plana dauka onartuta: 186/2008 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Arrain hirugarantzen, *Gasterosteus aculeatus* Linnæus, 1758, Kudeaketa Plana onetsi duena. Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoan, bermatu beharko da ez dagoela efektu negatiborik *Gasterosteus aculeatus* espezie kalteberarentzat eta ahalbideratu beharko da leheneratzen direla Ballonti ibailaren ibilgua eta zortasuna. Gomendatzen da ingeniari-tza naturalistikoko teknikak baloratzea, ibai-ertzen trataera egokiak erabiltzeko bide ematen dutenak.
- Eskatzen da prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak hartzea, espezie inbaditzaileak heda ez daitezen eta lur horietan dauden espezie horiek guztiak eliminatzeko.
- Espazio libreak diseinatzeko, gomendatzen da “Lorategi eta berdegune jasagarriak diseinatzeko eskuliburu”ra jotzea (Ihobe, 2017).
- Adierazten da lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko jarduerak egin direla 48080-00008 eta 48080-00097 parteletan, non lurzoria kutsa ditzaketen jarduerak edo instalazioak izan baitituzte.

6. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Planak antolamendu xehatuaren zehaztapenak jasotzen ditu. Beraz, kasu honetan egiten den ingurumen-ebaluazioa aurreikusitako antolamendu xehatuaren ondorio espezifikoei zentratuko da.

Ingurumen-azterlan estrategikoak izan beharko du ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) IV. eranskinean ezarritako edukia, eta hura osatu beharko da urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Planifikatzeko alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterlan estrategikoak -aurrerantzean, Azterlana- behean azaltzen diren alderdiak landu behar dituela, bakoitzari ondoren adierazten den zabaltasuna eta zehaztasuna emanda:

6.1. Planaren deskribapena

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterlanean, laburpen txiki bat jasoko da plan bereziaren aldaketarekin lortu nahi diren helburu nagusiei buruz. Gainera, azterlanak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, planaren elaborazioa egitean, ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Identifikatuko da zein diren planaren gaineratik dauden plan edo programak, zeinen helburuak eta zehaztapenak planaren bidez garatzen baitira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian planaren gaineratik dauden plan edo programen onespene-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren.

c. Planaren bitartez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira.

d. Hala badagokio, adieraziko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian planaren gaineratik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita hura garatzeko beste

tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta baldin eta ebaluazioaren xede den planaren aplikazio-eremukoak edo xedea badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsultagunerako esteka txertatuko da.

e. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere, baldin eta aplikatu behar badira.

Zehazki eta beste batzuen artean, honako plan hauek hartuko dira kontuan:

- Sestaoko Udaleko eta Trapagarango Plangintza Orokorra Ibarzaharrean haren ingurunetan Bateragarri egiteko Plana.
- Trapagarango Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.
- Sestaoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.
- Kantauriko Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 legearen 23. eta 31.4 artikulua.
- EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikulua eta hurrengoak.
- 186/2008 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Arrain hiruarantzaren, *Gasterosteus aculeatus Linnæus*, 1758, Kudeaketa Plana onetsi duena, espezie kaltebera delako eta bere babesak berariazko neurriak eskatzen dituelako.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a.- Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du azterlanak, eta haiek lotura izan beharko dute planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

b. Aurreikuspen bat egingo da planean egiten diren proposamenak gauzatzeko egingo diren proiektuei eta jarduketari buruz, batik bat lurzoru kutsatuei, urbanizazio-proiektuari eta aurreikusitako produkzio- edo/eta merkataritza-jardueren instalazio-proiektuei buruz.

c. Deskribatu da planeko zer ekintzak izan dezaketen eragina ingurumenean, eta ekintzak kokatuko dira; garrantzi handikoenetik txikikoenera hierarkizatutako dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela

deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta / edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, erantsiko da zer denbora-aurreikuspen egiten den plana garatzeko, eta, bidezkoa bada, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako zehaztuko da.

Epigrafe honetan biltzen den informazioa eskala egokian islatuko da kartografian, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita planaren zer aurreikuspen eta jarduketak izan ditzaketen ingurumen-ondorio nabarmenak. Gutxienez eremuaren mugaketa eta jardueren kokapena jasotzen duen informazio kartografikoa sartu beharko da, pdf eta shape formatuetan.

6.1.3. Planifikatzeko alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta alderdi hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen tekniko, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dauden alternatiba bakoitzetik eratorritako proiektuen eta Planeko ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta Azterlaneko 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

b. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea.

Azterlanak deskribatu beharko du zein diren ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak planak eragindako eremuan. Karakterizazio hori elementu abiotikoei eta biotikoei buruzkoa izango da, bai elementu mota bakoitzaren ikuspegi sektorialetik, bai haien interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emateko.

Planaren eraginpeko esparrutzat, antolamendu-esparru osoaz gain, haren ingururik hurbilena hartu behar da, planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara mugatuta.

Ingurunearen kalitateari buruzko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer estekatatik sar daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko gunera.

Azterlanak eskala egokiko planoak izango ditu, ingurunearen aldagaiak islatuta.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jaso beharko da ea interes naturalistiko eta ekologikoko elementurik dagoen; esaterako, Ballonti erreka, mugakidea baita, nahiz eta ez izan sektoreko parte. Egungo elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, baita interes maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak ere, plana gauzatzean areagotu daitezkeenak.

Ahal denean, datu kuantitatiboak emango dira, hala nola azalera, populazioaren tamaina, bikote edo banakoen kopurua eta garrantzi erlatiboa EAEko edo haren banaketa-eremu naturaleko populazio osoaren azalera eta tamaina osoari dagokionez. Halaber, honako hauei buruzko datuak emango dira: kontserbazio-egoera, interes-maila, kalteberatasuna, egungo presio eta mehatxuak eta Plana gauzatzerakoan areagotu daitezkeenak.

c. Paisaia. Aztertuko da ea elementu interesgarriak dagoen pertzepzio-ikuspuntutik.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Uholdeak izateko arriskuari, lurzoruko kutsaduratik eratorritako arriskuari, lurpeko uren kalteberatasunari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatu beharreko beste edozein ingurumen-arriskuri buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira.

e. Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsatzaile izan daitezkeenak identifikatuko dira.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuetan oinarrituta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren planeko jarduketetako elementu, prozesu, arazo eta arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko da ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoeretan, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, kontuan hartuta planean jasota dauden aldaketen ondorioz sortuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumen-azterlan estrategikoak hauteman beharko du zer eremu izan daitezkeen arazotsu ingurumenaren aldetik, bateragarriak izan daitezen proposamenen garapenarekin; horretarako, kontuan hartu beharko du Ebazpen honen 3. apartatuan adierazi diren eta ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremu edo elementuak daudela.

Era berean, eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da, beraren harrera-gaitasuna, arrisku guneak eta eremu hauskor edo kalteberak ebaluatzeko.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-efektuak

a.- Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da zer efektu izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek azterlanaren 6.2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterlan bat egingo da jakiteko da zer interakzio dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoen artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektu dauden, honako hauek bereizita: zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterlanaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zehaztuko da zer efektu dakarten zenbait ekintzaren konbinazioek. Era berean, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Planean horrela deskribatutako ondorio bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Analisatuko da zer eragin izan dezakeen uholde-arriskuak hirigintza-garapenean, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko plan hidrológicoaren araudia betetzen dela, zaintza-eremu urpekorreko erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua). Justifikazio hori arloan eskumena duen organo baten azterlan hidraulikoan edo txostenetan oinarritzen bada, haiek ere aurkeztu beharko dira gainerako dokumentazioarekin batera, ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko.
- Kutsatuta egon daitezkeen kokagunetan egindako indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak.
- Ingurumen-azterlan estrategikoa analisatuko du zein mailatan betetzen diren kalitate akustikoaren helburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarriak. Hala, zehatzu egin beharko da ea eremuan aplikatu beharreko araudiak aukera ematen duen eremuko ekoizpen-erabilera bereizgarriari dagozkion babes akustikoko betekizunak baino zorrotzagoak bete behar dituzten erabilerak kokatzeko.
- Ingurumen-azterlan estrategikoa analisatuko du zer efektu duen hirigintza-garapenak Ballonti ibaian eta haren zortasunean, baita *Gasterosteus aculeatus* espeziean ere.

b. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, zenbateko iraupena eta maiztasuna izan dezaketen, eta itzulgarriak ote diren.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Ezaugarri natural, kultural eta paisajistiko berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.

- Planak zein neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilita, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen ondorio edo efektu horien iragarpenean.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta ahaleginduko da zehazten plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea antzemandako efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein den eraginpeko plangintza-tresna.

e.- Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-efektuak, eta nabarmenduko da haien garrantzi erlatiboa.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den aztelanaren 3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondoren kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b) Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta 3. apartatuan identifikatutako ondorio edo efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatu diren planetan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaietako eta Erreketako Ertzak Antolatzeako Lurralde Plan Sektoriala (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki atal arauemaileko 44. artikulutik 46. artikulura zehazten diren irizpideak, baita arloan eskumena duen organoak gai horren gainean emandako txostenak ere.
- Gainera, potentzialki kutsagarriak ziren jarduerak izan dituztenez iraganean eta beraz etorkizuneko erabiltzaileentzat eta/edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeen lursailak daudenez, gauza bera egin beharko da lurzorua kalitateari buruzko adierazpena egitean, Plana behin betiko onartu aurretik, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraiki.
- Zer neurri hartzen den *Gasterosteus aculeatus* bermatzeko espezie kalteberak ez duela ondorio negatiborik.
- Zer neurri hartzen den Ballonti ibaiaren ibilgua eta zortasuna berreskuratzeke. Definitzeko, gomendatzen da ingeniarietza naturalistikoko teknikak baloratzea, ibai-ertzen trataera egokiak erabiltzeko bide ematen dutenak.

- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusiak kontuan hartuta.
 - Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaian integratzeko, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko gainazalak ezarri, eta kontuan hartuz Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako «Lorategi eta berdegune jasagarriak diseinatzeko eskuliburua» argitalpenean jasotako gomendio eta neurriak. Ildo horretan, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* eta abar. Orobat, neurriak hartuko dira espezie horiek kentzeko eta lur-mugimenduen bidez hedatzea ekiditeko; horretarako, kontrolatu egingo da birlandaketan eta urbanizazioko lorategietan erabiliko diren mailegu-materialen eta landare-lurraren jatorria eta osaera.
 - Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterlan estrategikoak hainbat neurri jasoko ditu, planak klima-aldaketan izan dezakeen eragina arintzeko eta hartara egokitzeko. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. *Udalsarea 21 lan-koaderno*» eta «*Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*».
- c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.
- d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, plangintzaren geroagoko fase edo etapetan edo Plana gauzatzeko etorkizunean diseinatuko diren proiektuetan aplikatzea komenigarri edo egingarria denean.
- e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzear arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

- a. Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, non deskribatuko baita zer neurri aurreikusten den Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko. Neurri horiek alderdi hauek kontrolatzera bideratuko dira:
- Gainbegiratzea ea behar bezala ezartzen diren planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko aurreikusita dauden neurriak.
 - Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
 - Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-ondorioak egiaztatzea, neurri egokiak hartu ahal izateko aurreikusi gabeko efektu kaltegarriak azkar identifikatzeko eta haiek saihestu edo zuzentzeko.
 - Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak azterlanaren 4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin identifikatuko dira, eta bat etorri beharko dute.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterlanean, baita zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6. Ingurumen-laburpena.

a. Deskribatuko da zelan txertatu planean ingurumen-alderdiak. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, azterlanaren 6.1.1 apartatuan deskribatutakoak.

b. Aztertu egingo da zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta beharrezko argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero oso arrisku txikia dagoela efektu esanguratsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori gauzatzeko, azterlanaren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

a. Azterlanak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurreko informazioaren izapidearen eraginpean jarriko du plan honen hasierako bertsioa, ingurumen-azterlan estrategikoarekin batera; gutxienez, 45 egunez.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen den ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerrenda hau hartuko da kontuan:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza Eusko Jaurlaritza
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusia
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren Ingurumenaren Iraunkortasunerako Atala
- Bizkaiko Foru Aldundiko Jasangarritasunaren eta Ingurune Naturalaren Saileko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua
- Ekologistak Martxan Bizkaia Elkarte.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkarte

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesionala eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egin beharko dute azterlana, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du.

Azterlanak eta haren eranskin guztiek (eragin akustikoari buruzko azterlanak, adibidez) pertsona horiek identifikatu beharko dituzte, eta adierazi beharko dute zein diren haien tituluak eta, hala badagokio, lanbide arautua. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Haiek azterlanaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, salbu administrazioak frogagarri gisa emandako datuak direnean.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek behar den koherentzia errespetatu beharko dute, bai haien artean, bai aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada; hartara, ez da oztopatuko erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana, baizik eta erraztu egingo da.

2. Arreta berezia jarri beharko da adierazteko zer datuk ahalbideratzen duten kasu bakoitzean dokumentu teknikoan apartatuak haien artean erlazionatzea (esaterako, apartatu batean proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, izen berarekin aipatu beharko dira ekintzak bi kasuetan).

3. Beharrezkoa balitz, adierazi behar da zein iturritatik lortu diren datuak.

4. Planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu behar da hala eskatzen duten apartatuetan. Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, georreferentziatuta.

Analisi tekniko egokia errazteko, bistaratzeko pdf formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da *shape* formatuan (ahal dela, UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilita), zeinak ezingo baitu 10 Mb gainditu. Shape fitxategi hori ZIP fitxategi batean entregatuko da konprimatuta, dituzten 4 fitxategiek osatuta: .shp, .shx, dbf, .prj.

«Eremua.zip» shape konprimatuaren adibidea, lau fitxategiak bilduko dituenen»: `eremua_adibidea.shp; eremua_adibidea.shx; eremua_adibidea.dbf; eremua_adibidea.prj`

6. Plano guztiak kodea eta izenburua jarrita identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.

7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, planoan jatorrian adierazitako eskala zuzendu beharko da, horretan oinarrituz egindako neurketek zalantzarik sor ez dezaten.

8. Testuetan zehar aipatutako eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak aurkeztu beharko dira dokumentazioarekin batera. Erreferentzia horiek argi eta garbi jarri behar dira, kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan.

9. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientearen zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko du zer kapitulu, orrialde, epigrafe, apartatu, lerrokada, esaldi, koadro, irudi, plano eta abar ezeztatu edo ordezkatu behar diren jatorrizko dokumentuan zuzenketaren ondorioz. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Aipatutako jarraibideak betetzen ez badira eskaera bat zuzentzeko, litekeena da izapide gehigarri bat behar izatea, kontraesanezko edo inkongruente izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena ekartzea prozeduraren ebazpenean.

10. Eskaera IKS-een sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatzekoak diren fitxak eta formularioak erabilia, zeinak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura baitaitezke; zehazki, helbide honetan:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>

11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten bada, gehienez 30MB izango ditu, eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentuak handiagoak badira, zatitu beharko dira, sisteman sartzeko.

12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide bat txertatuko da, eta zehaztuko da zer orrialdetan dauden adierazitako apartatu guztiak. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazi behar denarekin.

13. Datuak igortzean, organo sustatzaileak beti bermatu beharko du datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen dela.

Bigarrena. Ebazpen hau Trapagarango Udalari komunikatzea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren web-orrian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 10a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria

Director de Administración Ambiental



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

IVAN PEDREIRA LANCHAS